



ARRIERA

Hemengo eta hango collage antzerkia

Arriera antzerki mota desberdinetan espezialista den antzerki konpainia da: paperezko antzerkia, antzerki bisuala eta objektu-antzerkia. Konpainiaren produkzioek antzerki-jokoa miatzen dute baliabide desberdinen bidez: hizkuntza garaikideak, performancea, dokumentu-antzerkia eta poesia.

Nahasketa, collagea, hori bada konpainiak jarraitzen duen berezko norabidean dagoen zerbait, bideak gurutzatzen direnean ikuspuntu desberdinak sortzen direlako. Konpainiaren antzezlanek diziplina eszeniko eta eszenaratutako sorkuntza plastikoa -paperez, tintaz eta buztinaz- batzen dituzte.



Konpainiak formatu txikiko eta ertaineko antzezlanetan interes handia dauka eta, horrez gain, proposamenak kalera, aretora, eta ez-ohiko erakusketa lekuetara ere moldagarriak izatea onesten du. Instalazio eszenikoak ere sortzen ditugu, harridura, jakin-mina eta jendearen arteko elkarreraginaren bila.





Gure antzezlanak umeei zein helduei zuzenduak daude. Bai handiari, bai txikiari so egitea gustatzen zaigu, begi bat teleskopioan eta bestea mikroskopian izanda. Istorioen sorkuntzak mugiarazten gaitu, beti genero-ikuspuntua eta aniztasuna estimuan izanik, bideko harrien artean desberdinak direnak harribitxiak direla ikusi baitugu.

María Ramírez Luengo


Antzezlea, arte plastiko eta eszeniko sortzailea. ARRIERA Konpainiaren ekoizlea eta zuzendaria. Antzezpen, dantza, ahozko kontaketa, txotxongilo eta objektuen maneian prestakuntza. Gaur egun, gorputza eta objektua, dokumental antzerkia eta eszenatokian teknika plastikoen erabilera ikertzen ari da.



Samuel Cano Braojos

Antzezlea, instrumentu anitzeko musikaria, eta diziplina anitzeko artista. Zuzeneko sorkuntza plastikoa, dantza garaikidean, performancean, eta maskarak, txotxongiloak eta objektuen antzerkian interes handia du. *La Deriva* sorkuntza espazioko kidea da. Han *Aromalario* proiektua, garatzen du usainari buruz. Gaur egun, kale artearen eta hiriko esku-hartzearen arloan ere lan egiten du *site-especific* garaikideko arte proiektuetan.

Arriera konpainiak eszenarekin lotutako bestelako jarduerak garatzen ditu: heziketa, neurrirako antzelerak, beste konpainientzako sorkuntza, artelan plastikoak eta esku-hartze soziala proiektuak. Han-hemenka ibiltzea gustuko dugu.



www.arriera.eu

info@arriera.eu

636 71 35 53 /// 94 6 41 91 74

María Ramírez Luengo

Aretxaga, 4 /// Bilbao 48003

